

RASFF TXOSTENA

ALERTAK eta JAKINARAZPENAK


PENTSUAK

2017ko URTEKO TXOSTENA


Jakinazpenen kategorizazioa
Atzemandako arriskuen jatorria
Tartean dauden produktu motak
Tartean dauden lehengaiak
Aurreko urteen arteko konparazioa

JAKINARAZPENEN KATEGORIZAZIOA


2017an pentsuei buruzko 240 jakinarazpen egin dira. Horietatik **30 (% 9) alertak izan dira, 159 (% 61) informazio-jakinazpenak eta 51 (% 30) mugan egin diren ukapenak.**



Hona hemen urtean zehar RASFFen bitartez jasotako jakinarazpenen kopuruan izandako joera:




Tartean dauden produktuen jatorriko herrialdeei dagokienez, hirugarren herrialdeek egin dituzte jakinarazpenen % 45.



ATZEMANDAKO ARRISKUEN JATORRIA


2017an atzemandako arrisku gehienak **mikrobiologikoak izan dira (% 54)** eta jarraian honako hauek ditugu: **mikotoxinak (% 11)**, **metal astunak (% 5)**, **PAEak (% 4)**, **dioxinak (% 5)** eta **beste arrisku batzuk (aizunketa, ambrosia spp.ren presentzia, gosipol askea, etab.) % 20**. Baimendu gabeko OGMei dagokienez, **RASFFek 3 jakinarazpen jaso ditu 2017an**.



Arrisku mikrobiologikoei dagokienez, **Salmonellak** eragin ditu jakinarazpen gehienak (**112**). Salmonella atzeman den lehengaien artean honako hauek daude: **soja-produktuak, koltza-produktuak, ekilore-produktuak, arrain-irinak, animalia jatorriko irinak (haragia, hezurak, lumak, etab.) eta txakurrentzako mastekagarriak.**


B1 aflatoxina izan da arrisku mota honekin lotutako jakinarazpen gehienetan identifikatutako mikotoxina, batik bat **kakahueteetan eta ekilore-hazietan** atzeman delako.

2017an jakinarazitako arriskuak, lauhilekoko




TARTEAN DAUDEN PRODUKTU MOTAK

Produktuka aztertuz gero, **lehengaiak eragin dituzte jasotako jakinarazpenen % 72, laguntza-animalientzako pentsuak % 19, gehigarri eta aurre-nahasketek % 4 eta loditzeko animalientzako pentsuak % 5.**




Jakinarazpenetan tartean dauden produktuen bilakaera, lauhilekoko:




TARTEAN DAUDEN LEHENGAIK

Nabarmentzekoa da lehengai hauek eragin dituztela jakinarazpen gehien: **laguntza-animalientzako pentsuek (42)**, **soja-produktuek (20)**, **koltza-produktuek (25)**, **ekilore-produktuek (11)**, **arrain-irinek (13)**, **haragi-/luma-/odol-irinek (30)** eta **gizentzeko animalientzako pentsuek (14)**.




Honako grafiko honetan jakinarazpenen bilakabidea azaltzen da, lauhilekoko, tartean dauden lehengaiak aintzat hartuta:



AURREKO URTEEN ARTEKO KONPARAZIOA

2017an 240 jakinarazpen egin dira; 2016an, berriz, 211 jakinarazpen. Aurreko urtearen aldean, **2017an gora egin du jakinarazpenen kopuruak kategoria guztietan.**



2013. urtetik 2017. urtera bitartean identifikatutako arriskuei dagokienez, nabarmendu egin behar da mikrobiologia arriskuen eragina, betiere atzemandako gainontzeko arriskuekin erkatuz gero. Oro har, 2017an identifikatutako arrisku gehien jakinarazpenak murriztu egin dira, aurreko urteen aldean, "beste batzuk" kategorian salbu (aizunketa, osasun-ziurtagiri ez egokiak, *ambrosia spp.*ren presentzia, gosipol askea, etab.)

